

Proiektuaren deskribapena

FESTY-DRIVERS festibaletan pertsonen garraio zerbitzua eskaintzen duen enpresa bat da. Gure enpresaren izenaren jatorria zuzena da, hau da, festy: jaialdietan aritzen garelako eta drivers: gidariak garelako. Gure izena ingelesez dago idatzita jaialdi hauek mundu osoan zehar ospatuak eta ezagunak direlako.

Gure ideia jaialdiaren arazo nagusienetako baten ondorio izan da. Eremua handia da, eta bezeroek bertatik ibili nahi badute gure zerbitzuak erabiliz bidea erraztu diezaiekegu. Tomorrowland jaialdian ez da egon gu bezalako zerbitzurik, honez gain, gure irabazien ehuneko bat donatu egingo dugu. Gainera, eskeiniko ditugun golf autoak elektrikoak izango dira, beraz, enpresak zerbitzu jasangarria sustatzen du. Hori da desberdintzen gaituena.

